

J A U N G O I K O Z A L E

E U Z K E L D U N E I E U Z K E R A Z

V'URTIA

Zornotza'n 1916 g. — Otsāa 1.ⁿ

43'g. zenbakija



JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

PAREZETA

JAUNGOIKO ZAL

EUZKELDUNEI EUZKERAZ



V'URTIA

Zornotza'n 1916 g. — Urtarila 15.ⁿ

42'g. zenbakija

Goizparkija (Ebanjelijoa)

Aldi atan: Galilea'ko Kana'n ezteguak ziran; eta Jesus'en Ama antxe egoan. Eta Jesus'i ta bere ikaslai be, eztegurako dei egin eutsen. Ardaau amaitu zala-ta Jesus'en Amak esan eutsen oni: Ez dauke ardaurik. Eta Jesus'ek diñotso: ¿Emakumia, zer deusku zuri ta niri? ez da ondiño eldu nire ordua. Baña aren Amak diñotse otseñai: Beronek esango deusuen gustija egikezue. Eta an egozan sei ontzi arrizkoak garbikunderako Juda'rren artian ekandu zan legez, bakotxak *metreta* (1) bi edo iru artzen ebezanak. Jesus'ek esan eutsen: bete egizuez ontzi orrek urez; eta gonburu bete ebezan. Eta Jesus'ek diñotse gero: atara orain, eta eroakiozue mai-burukoari; eta eroan eutsen. Ozta txas-tau (probau) eban mai-burukoak ar-dau biurturiko ura, nundikoa zan jakin barik, otseñak bekijen arren, eurak ura atara eben-ta, dei-egin eutsan senar ezkon barrijari, eta diñotso: Edozeñek lenengo ardaau ona ipinten dau, eta gero, edanda dagozanian, ain ona eztana; zuk barriz ardaau ona azkenerarte gordeta euki dozu. Auxexan zan Jesus'ek Galilea'ko Kana'n

(1) Au da Atena'tarren neurri baten izena; lbertarrek *kado* deritxanen idekoa, ta Erroma'tarren *anfora* baño andijagua. *Metreta* bakotxak 56 libra inguru artzen ebezan, augaitik ontzi onek bos arroatik zaspira artzen eben.

egin ebazan mirarijetatik lenena, ta bere almena agertu eban, eta bere ikaslak beragan ziñestu eben. (Joan. II, 1-11).

* *

¿Zeinbat ikasbide eder atara geinkez gaurko Goizparki onetatik! Nik bat baño ez dot aitaturko; Marija'ren altasuna ta bijotz samurra. Ezkon barrijak ezer esan barik, eskatzen deuto bere Semiari euren alde, eta onek mirari andi bat egitia jaristen dau.

Azkenengo epai-egunian-edo jakin-go dogu Marijagandik zeinbat on eta mesede geuretu doguzan, ausaz geuk eskatu barik.

Maite egizu ba, bijotz bijotzetik Ama ain ona.

A.E.K.

Negarren indarra

Manes'tarrak, jakingai gustietan zurr-ospe errimeko gizon bat eukan. Pausta zeritxon. Lefdena, ederto egina, itz laban, samur, leun biribila, adurra zerijoela eukazan bere aditzal-leak. Guzurra egi-soñekoz jantziten txatala eukan. Gogo-jakirik naskarrienak egirik osasungarrienak izan ba'litzoz bezela saltzen zituan, eta beretarrak poz-pozik iruntziten zituen. Erretillua, ziñez, polita zan, jakia baña kaltegarria. Manes'tarrak erreti-

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

V'URTIA

Zornotza'n 1916 g. — Otsāla 1.ⁿ

43^g. zenbakija

Goizparkija (Ebanjelioa)

Aldi atan Jesus'ek giz-aldriari esan eutson: Zéruko erreñua gizonak bere soloan eraiten daben bostaza garaua lez da; azi gustijetatik txikijena da berau, baña andi egin daitenian, beste landarak baño andijago da, ta zugatz egiten da, ta txori-egaztijak datoz bertara, ta bere besangaetan bizi dira.

Beste irudi batez be, itz egin eutsen: Zeruko erreñua askarri edo txantxanduria lez da; emakumiak artu ta ostenduten dau iru anega urunetan, gustija txantxartu edo jagi arte. Onek gustijok adi-bidez esan eutsozan Jesus'ek giz-aldriari; ta irudiz-ezik ez eutsen itz-egiten, Igarliak aur-esana bete zedin: Idigiko dot neure aboa irudi-parabolaz, eta munduaren asikalditik eskutuan dagozan gauzak esango dodaz. (Mat. XIII, 31 35).

* *

Deun Ilario'k diño Goizparfaren atal onetan boztaza irudipian Jesukristo berbera agertzen yakula; Juda'tafak ezetsi, erail eta lurperatu ebena; baña gero asi ta aintzaz jagi zana beste Igarla gustijak baño gorago. Deun Kisostoma'k, osterā diño, boztaziaz adierazoten yakula Goizpar-zabalkundia ta ziñskintzaren sorkuna, ludiko bastertxu batetik gizon-

txu batzuk ludi gustira zabaldu dabena.

Baña nik beste gauza batzuk aurkeztu gura deusuedaz, txikijak dirudijela, andijak eta aldintsuak diranak; zeuen eguneroko lan onak eta otoyak.

Gure lanak: ¿Zer dira gure egite ta lanak eurenez? Ezerez. Biarkunen bat betetia, efukizko egikunen bat edo beste, nekien batzuk igarotia... ¿Eta onek gustijok zer dira? Utsa eurenez. Baña Jaungoikuaren eskar, urgazpen ta laguntziaz egiten badozuz, ezin esan neitsu zein andijak eta aldintsuak diran. Onetariko egite bategaz, esaterako autorkuntziaz, zeure oben gustijen azkezpena jaristen dozu. Jaunartze edo Komuniño batek zeruko ondasun ugarijak dakartzuz. Jaungoikuaren adiskide zārala egiten dozun egikun on bat naiko da zeruko atsegintza andijak zeuganduteko. Indar ori datorkijoe zure egite txatxafei Jesukristo'ren irebazi ta ondasu-netatik; aonexek nastauten dira zeuriakaz, txantxanduria urunagaz lez, eta zure egikun zirziñok Kristorenduten dira.

Gure otoyak: Otoya-be asko balio dabena da, ez dirudijala. ¿Zeinbat ezesten dan otoyā munduan! ¿Otoi-egin? emakume txatxalok edo santulariñoen batzuk-edo tira... ¿baña gizon garerdikoak? Bai zera. Ta otoyā bafiz boztazia edo txantxanduria lez da.

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

V'URTIA

Zornotza'n 1916 g. — Otsaia 15.ⁿ

44'g. zenbakija

Septuagesima (aratuste aste bi aurreko) Ebanjeliuma

Goiz-goizetik bere mastira langilliak eruateko urten zan gizonaren antzekua da zeruko Bakalterria. Eguneko *denario* bat (amarreko ziderra) emoteko egiuniaz bidaldu ebazan langilliak bere mastira. Urtenik barrero bederatziak inguruan, idoro ebazan batzuk plazan alperkerian, eta diñotse: Zoaze zuek be neure mastira, ta itxuran emongo yatzube. Areik, barriz, jua ziran. Barrero urten zan amabiek eta irurek samarrian, eta beste orrenbeste egin eban. Urten zan illuntzaldian eta idoro ebazan beste batzuk egoten, eta diñotse: zetan za goze egun osuan alperkerian? Eranztuten dautsoe: Iñok ez gaitu alogaduta. Diñotse: Zoakeze zuek be neure mastira. Gaberuntz masti-ugazabak diñotso bere ornikari edo mayordomuari: Deitu langilliak eta emon alogera azkenenguekandik asita lenengueneraño. Illuntzaldian, beluen lanera jua ziranak etorririk, artu eban baktzak amarreko ziderra. Lenen lanera juanikuak etorririk, uste eban aloger andiagua artuko ebela; baña areik be baktzak amarreko ziderra artu eban. Eta artutian ugazabaren kaltez mor-morka egozan, iñuela: oneik azkenenguok ordu bete baño ez-

tabe lanian egin, eta egun gustiko neke ta berua artu dogunok areikaz bardindu goguz. Eta euretaiko bati diñotso ugazabak: aizkidia, etzaitut ezetan iraindu zamarreko zider-aloger-egiunia ez dozu neugaz egin ala? Artu zeuria ta zuaz; azkenengo onei zeuri beste emon gura dautsoe. ¿Ez al neike egin gura dodana? ¿Ni ona nazalako zeure begia dongia ixango da? Olantxerik ixango dira; azkenenguak lenen, eta lenenguak azken. Deituak asko dira, baña autuak edo esleiduak gitxi.

* * *

Masti jabiaren irudipian adierazoten dausku Jainkua'k gustiok arimako lanetan jardun biar dogula zintzoro. ¿Zelan? Geure biotzak dongakerietatik aldendu ta onbidez edo birtutez ornitzen aleginduta; ta gero, geure geidia edo projimua bide zuzenera ekarten arduratuta. Zeregin onetan ez gara nagitu biar iñoiz be; baña zoritxarrez orregaz aitzuta bixi ixan ba'gara, ekin gogotik oraintxe, lengo nagikeriak kitutu ta zeruko aloger ederra irabazteko, biotz-berotasun eta zintzotasunaz. Ondo sartu geure buruban: bixitzaldi labur-labur onetan arimako gauzetan geure izerdiaz irabaziko doguna jango dogulo geroko betiko bixitzaldian.

Z. M.

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

V'URTIA

Zornotza'n 1916 g. — Epala 1.ⁿ

45'g. zenbakija

Aratuste igandeko Goizparkia (Ebanjeliua)

Aldi atan: artu ebazan Jesus'ek amabi Apostoluak eta esan eutsen: Ara; Jerusalem'era guaz, eta igarliak gizonaren Semiagaitik (neugaitik) idatziriko (eskribiduriko) gustia bete ta egiztuko da. Jentillen (zingien) eskuetan itxiko dabe ta onek irriz, zigorka ta txistu-urtika erabiliko dabe; ta zigortauta gero eraingo (1) dabe, ta irugarren egunian berbiztuko da. Baña eurak ez eben onetaikorik ezertxu be ulertu, ta itz onek adigatxak ziran eurentzat, eta ez eben ulertzen esaten yakena. Onetan Jeriko'ra urreratzianitsu bat egoan bide-munan eskian. Eta bidezko aldriaren zaratia entzunda, itandu eban zer ete zan. Eta erantzun eutsen Jesus Nazaretarra igaroten zala. Ta diadarka diño: *Jesus, David'en Semia, erruki sakidaz.*

Aurretikuak agiraka ekin eutsen, ixiltzeko; baña berak diadar andiaguaz ziñoan: *David'en Semia, erruki sakidas.* Jesus'ek gelditurik, agintzen dau beragana ekarteko. Eta urreratu zanian itandu eutsan: ¿Zer gura dozu? Eta erantzuten dau: Jau-na, ikustia. Jesus'ek diñotso. Ikusixu ba, zeure ziñestiak gaizkatu edo salbau zaitu. Eta beinguan ikusmena etorri yakon eta ikusten eban; eta berari

jarraitu eutsan, Jaungoikoa goraltzen. Eta giz-aldfiak, au ikusita, Jaungoikoa goraldtu eban. (Luc. [XVIII, 31-43.]

* * *

Jesus'en ikasliak bere nekaldiko garraztasun eta oñaziak (tormentuak) aditu ez ebezan lez, geuk be min, atsekabe ta laztasunakazko ez oi-dogu ulertu edo entendidu. Aukera, gozotasun eta aberastasunei agertzen dautsegube arpegi alaya (argia); baña gure aragai ez biar, zori gogor, gexo ta olakuak ikutu dagioenekoxe asarrez, artega inkezaka gabiltz. ¡Gurutzia Jesus'entzat! ¡Eta gu Jesus'en jarrallak garala, ta gurutziai ziarretara begirakal

Beintzat, Jainko-legiak bete ta pekatuai igestiarren artu biarko doguzan nekiei, eldu gogotik. Onetarako adoretuko gaitu pekatuari dagokion betiko gaiztokiko neke ta min garrazten gomutiak.

Z. M.

UZKURTZA (erlejiñoa)

Uzkurtz gustiak bardiñak dirala esaten dabenai, erantzuten ba-yake, ezin izaleizala uzkurtz egizkua ta guzuzekua euren ixatean eta eskubidean bardiñak, beferantzuten dabe uzkurtz gustien aldezeak, "egi-egia

(1) Eraill=il-erazo=occidere.

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

V^oURTIA

Zornotza'n 1916 g. — Epaña 15.ⁿ

46^g. zenbakija

Garizumako bigarren igandeko Goizparkia (Ebanjeliua)

Aldi atan: Artu ebazan Jesus'ek Pedro, Santiago ta onen anai Juan; eta eruan ebazan, bakarrian, mendi andira, ta euren aurrian edo aitziañan irudibi au zan. Bere arpegiak eguzkiak lez birrist egiten eban, bere jantzia edurra baxen zuria zan. Eta agertu yakuezan Moises eta Elias beragaz izketan. Baña Pedro'k diñotso Jesus'i: Jauna, ederto gagoz ementxe. Zeuk gura ba'dozu egin dagiguzan bertan iru txabola, zeutzat, Moises eta Elias'entzat bana. Oraindik izketan egoala, odei argitsuak gerizpetu ebazan; eta odeitiko abotsa entzun zan ziñoala: Auxe da atsegin-atsegintsua yatan Seme laztana, entzun egiozue. Au entzutian ikasliak auspez ezarri ziran bildur-bildurrez. Urreratu yakuen Jesus, ta ikuturik diñotse: Jagi ta ez bildurtu. Jasorik euren begiak ez eben ikusi Jesus baño besterik. Eta eurak menditik jatsitean agindu eutsen: iñori ez-egiozue esan ikusi dozuena, gizonaren Semia illen artetik biztuarte.

* * *

Jesus'ek irudibiauteko bere arimako zoriona gorputzian-ziar urteten itxi, besterik ez-eban egin, eta bere arpegi ta soñekorañoako guztia argi-

tsu, zuri ta zoriontsu iminten dauz orretxegaz. Baña Jesus ain zoragarria eguan ze, ikuskixun aregaz ikasliak, pozan-pozaz birlorauta, antxe gelditu nai dabe Jesus'i begira, ludiko (munduko) gauza guztiekin aiztuta. Baña arimako zorionaren tantatxuak Jesus'en gorputzeraño eldurik au erabiau ta edertu ba'eban, bera ikustiaz pozez zoratuta ikasliak itxiteragiño zer ixango da Jaungoikua'k gizon zuzenentzat daukon arimako zoriona bera, zorion mamiña, zorion guztia? Berau betiko lortziarren larregi ete-dira Jainko lege-pian zintzo ta zuzen bitxiak dakarguzan buruauste, ardura ta neketxuak urte batzuetan igarotia?

Z. M.

ELEIZ EGUTEGIJA

Jayak

Urrengo amabost egunetakoak onetxek dira.
19 garrena; garizumako bigarren igandia.
26 » » irugarren »

Baru egunak

Buldia artu dabenentzat garizuma gustijan ez dago beste baru-egunik *eguaštena barikua ta larunbata edo sapatua baño* Okelarik ez jateko egunak barikuak bakarrik dira.

Barikuetan ixan ezik okela ta arraiña jatordu baten jan leikez.

Auxe da eleiza ama santiaren laugarren agindua. Bere legia dan ezkerro, berak aldatu, arindu edo astundu leike. Len astunagoa ta

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

V'URTIA

Zornotza'n 1916 g. — Jorala 1.ⁿ

47'g. zenbakija

Garizuma'ko laugarren igandeko Goizparkia (Ebanjelioa)

Aldi atan juañ zan Jesus Tiberiades'ko Galilea-itxaso bestaldera; ta jarraitu eutson talde andiak, gexuetzazko mirariak ikusten ebezalako. Igon zan Jesus mendira, ta antxe jarrri zan ikasliekaz. Lastertxe zan Pazkua, judarren jaya. Jasorik Jesus'ek begiak, eta beragana etorririko talde andia ikusirik, diñotso Pilipe'ri ¿Oneik jan dagien nun erosi ogiak? Au ziñuan axe zirikatziarren, bai-ekian berak zer egingo eban. Diñotso Pilipe'k: Berreun amarreko zidarren ogia be ezta asko bakotxari apur bat emoteko. Diñotso Jesus'ri Pedro'ren anai, Andres ikasliak: Ementxe dago bost garagar-ogi ta arrain bi daukozan mutilla ¿baña orreik zer dira ainbes-tentzako? Jesus'ek diñotse: Jarri erayozue gizonoi. Elbitz asko egoan bertan. Jarri ziran 5.000 samar gizon. Jesus'ek, ba, ogiak artu ta eskarrak emonik banatu ebazan jarrita egozanei. Bardin arrañetatik be, gura-aña. Ase ziranian diñotse ikasliei: alperrik galdu ez daitezcan, batu egizuez enparau diran ondokiñok. Batu ebezan; eta jan ebenak bost ogietatik itxiriko otcnduekaz amabi zaran bete ziran. Gizon areik ikusirik Jesus'ek miraria egin ebala, ziñoen: ludira edo mundu-

ra etorteko zan benetako igarlia auxeda. Eta Jesus'ek igarririk etorriko ziralala berari eldu ta errege egiteko, barriro bera bakarrik mendira igeszan.

* * *

Jesus'en gizonakazko errukia ta eurok jaboteko daukon arduria ezta txikia. Gu emen gabiltz arduria-ardura ganian eta buruaustia buruausteganian doguzala; bein janari ta soñekuaz, iñoiz osasun-bizitziaz, eta abar. ¿Ogi-bidia, semiak, alabak, gora berak, etorkizuna? jenet! ardura larregiaz. Baña jaso daiguzan begiak goratxuago, ta gogoratu daigun Jaungoikua geugaz arduratzen dala janari, soñeko, osasun, bizitza ta irabazpidien ezik euki eztagigun; guri itxirik bakarrik bere legiak bete ta biotza garbi eukiteko arazua. Edozeñek, ba, esan legikio bere buruari, bere gauzak zer jasoko ete yakon gomutiaz ikaratzen asi ezker: "Urli, ez bildurtu; zure janari, soñeko ta enparauen arduria, gustia dakian eta aldaun Jaungoikuak dauko; orreitzaz ez ez-tutu, Jauna'k bere-gain artu dauzalako; zure-gain dagon egipidia da bere legiak betetia,,".

Baña orraitño ez ulertu, janaria ta ganerakuak goitik berez-berez jausiko jakuzala; esan gura dot orreik gauzok lortzeko alegiña itxuratxuan egin ezker, eztogula eztutu ta artegatu



V'urtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Jorala 15.ⁿ

48'g zenbakija
Aripidea lauerleko bi

Abar (erramu) igandeko goizpar- kia (ebanjeliua)

Aldi atan: Jesus, Jerusalem'era urratuaz, Betpaje'tik Olibete mendira eldurik, bialdu ebazan bere ikasla bi esanik: Zuaze aurrian dagon gaztelura, ta beriala aurkituko dozuez astua lotuta ta astumia beragaz; azkatu ta ekarri egidazue. Eta iñok ezer esango ba'leutzue, erantzun, Jauna dala orrein biar, ta otsian itxiko dautzue. Au guztiau jazo zan Igarlia'ren esana betetiarren: Esan Sion'go alabiar: ara or dator zeure Erregia otzanik (mantzo) asteme ta zamaria edo kargadunaren ume, astakumiaren ganian jarrita. Ikasliak juanik egin eben Jesus'ek agindurikua. Ekarrri ebezan asteme ta astakumia; gañian ezarri eutsiezan euren soñekuak, eta berari igon eragin eutsoen. Talde andiak ipinten ebezan bidian euren soñekuak. Beste batzuk zugatz adarrak ausirik

bidian zabaltzen ebezan. Aurretik eta atzetik yoyazan aldrak diadarka yiuñen: Gora Dabid'en Semia; donetsia (bedeinkatua) Jauna'ren izenez datorrena.

* * *

Judarren gorak eta txaluak entzun ebazanetik boskarren egunian entzun eban Jesus'ek euren agotik: KENDU, KENDU; IL ORI.

Gizona orixe da; axia baxen aldakorra: gaur iñor jaso, biar eratsi axe ber-bera, lengua izan arren. Gizonen txalo ta kendu ok laster ixilduko dira. Jaungoiko ta aingeruen txalo ta gora en billa ibili gaitezán. Jaungoikuak "kendu akit" esango ete dauskun bildur-izan. Jaungoiko-legietatik oñik ez aldendu, gizonakandiko igortzi ta leusñakaitik. Jaungoiko-bidietatik ibili ezkerro, elduko gara aingeruen "txalo ta gorak" entzutera. ¡Areik, bai, txalo ta leusin betizuak!

Z. M.

agindu eban idazteko zegañik iltzen zan. Idazkun au iru eletan eguan ida-tziña; añotzak, be, irakuñtzeko. Jon goizpargiñiak diño ezafi ebela: *Josu Nazaretaña Judañen Bakalduna.*

Idazkun au burutzat ezafi eban Pilatus'ak ekanduba egualako, ala Josu'ri guña ebalako ezafi, beren buruba, bidez, aldezteko. Au ba-zan, Pilatus'aren asmua, Jaunguaren beste bat ixan zan.

Jauna untzauta, kurutz Deuna ageñtu zan argiro. Enda-aldara gustija eguan Josu'ri begira, ta birao-egiñen eutsoen eta ifi-baño. Eta berakin untzauta egozan lapuñak, be, birao-egiñen eutsoen.

Aemen, *Jauna, Zugastik agintzen.* Ordutik kurutzeta geure osasuna da; eta donokira igon gura ba-gara, Josu'ren antzeskija iratzi biañ dogu geure gugetan.

ALBIZURI'TAÑ SERAPIN. JAUPARIJA.

Amaren atsekabeak

Jesus gurutzia zorbaldan daramala, kalbarioko mendiruntz dijoa; ta negañoz urtutuen emakume batek atzetik dañayo. Kalbarioko galufian Jesusi soñekuak kendu, gurutzian etzin-erazo ta iru iltzez ezku-oñak josten dizkate; ta lenagoko emakumea uñe uñean dago, ta maluaren ukaldika bakoitzak zatiren bat puzkatzen diola dirudi Jesusen gurutzia zutitzen dute, ta Jesus ortz-ludi artean zintzilika gelditzen da; ta emakumea, atsekabezko itxaso bat egiñik, gurutze oñian dauka. Jesusek gurutzetik samuñkiro itz egiten dio, ta emakumeak asberaz (1) eta negañoz bakañik erantzuten dio. Jesus gurutzian iltzer (2) dago; emakumea oñean konkor. Jesus iltzen da; emakumea, il nayan, bizirik gelditzen da. Gudari

(1) asberaz=zizpuruz.

(2) iltzer=il-agiñian.

batek Jesusen bular biotza zulatzen ditu, ta emakumearen biotza erdibitzen du. Jesusen gorputza gurutzetik jetxizen dute; ta emakumeak bere magalian artzen du. Jesus obiratzten dute; ta obiaren eztalkiak emakumearen biotza eztaltzen du.

¿Nor ote da, Jesusen nekauzi-eriotzan, Jesusi lagundu dion emakume atsekabez atsekabeta? Maria, Jesusen Ama da. II dan Jesus, Jainkoa da; ta bizirik gelditu dan Maria, Jainkoaren Ama.

Eñukañiak dira beoñ-emearen oñuak leizera itzulita, an utzi zituen bere umeak ez arkitzean; eñukañiakoak emakume baten negaño eta asberak bere seme bakañaren eriotzan; ta, zñolakoak izango ote ziran Jainkoaren Amaren oñaze ta atsekabeak Jainkoaren nekauzi-eriotzian?

¿Cui comparabo te? ¿Norekin berdinduko ote zaitut Maria? Itxasoak baño zabalagoak dira zure biotzaren oñazeak; zuleiza baño zakonagoa zure zamintasuna; ortzea baño goragokoa zure atsekabea.

Kristauna: Mariaren nekausi au ikusi, ¿ta ez ote zera eñukituko? Ba jakin ezazu Maria zure Ama dala. *Ecce Mater tua.*

GARZI-ZABALETA'R ENEKO APAIZA.

ECCE HOMO

Janzkofiz jantzita, buruan arantzazko burestuna, ta esku loturikoetan inge edo kañabera bat ebala, Josu, Pilatus'en jauregira eroan eben. Ezagututea be gaitz zan, bere begi mosu ta bizañak, odolduta eukazako.

Bere gorputza goitik beraño zaurituta eukan, ta makuñtuta ikaraz, ebillen. Pilatus'en auñera eldu zanean, gizon au ankeña izan añen itzalez ta eñukiz ikaratu zan, baña eñitañak ta jaupariak destaiña ta ixeka egiten eutsoen. Josu'k malladia igon zanian, Pilatus ateleyora urten zan, turuta jo eben Pilatus'ek itz egin gura ebala adirazteko, ta jaupari nagosi ta euren

inguruan egozanai esan eutsen "Bafiro be aufkezten dautsuet obengea dala jakin daizuen".

Josu eroan eben Pilatus'en ondora efi gustiak ikusiko eban tokira.

Jaungoiko-Semearen agerkundian ikuskizun ikaragafia izan zan; arantzazko bureztunaz, odolez beterik, bera begira zegoan, efiaren aufean, ta Pilatus'ek judafai erakusten eutse-la deadar egin eban. "¡Ecce Homo!" Jaupari nagosiak ta euren jafaitzaleak amufuz erantzuten eben ¡Il bedil ¡Untzau bedil! Orduan Pilatus'ek esaeban; ¿Naiko ezta ba? ¡Bakaldun izateko gogoia kentzeko eran imini dabe ta! Baña aek safiango ta amofu gogofagoz deadar egiten eben ¡Il bedil ¡Untzau bedil! Bafiro be, turuta jo eragin ta Pilatus'ek esan eban: "Artu ta untzatu zeinkie zeuok, nik ba, obendun ez dot esten". Jaupari artean batzuk gafazi egin eben. "Lagia dauka-gu, ta lagi onen indafez, il bear da, Jaungoikoaren Seme egin da-ta." Itz onek "Jaungoikoaren Seme egin da-ta" zortu eben Pilatus'en bafuan bildur aztikoya; ta Josu toki atatik al-denduta, nuntafa zan itandu eutson. Josu'k ezeutson erantzun be, ta Pilatus'ek bafiro esan eutson. "¿Ez dauztazu erantzuten? Zeu untzatu nai azke izteko eskubidea daukodala, ¿ez ete dakizu?" Orduan Josu'k erantzun eutson. "Al edo eskubiderik ez zenduke nigan, goitik artu ezpazendu, agatik zure eskuetan ipini nabena oben andiaren efudun da".....

Gizon moskor antzera Pilatus ezba-yan egoan; bere adimenak ezekian zeta-ara jo be. Bafiro be itz egin eban Josu'ren etsayakaz, baña onek iñoz baño gogofago Josu iltzea eskatuten eben.

Pilatus artega ta nora jo ezekiala, zalantz atsekabezko onetatik ufteiteko, zerbait Josu'gandik entzun gura eban, estutasun artatik aterako ebana: biur-tu zan ba epai-tokira ta Beragaz baka-rik egon zan. Josu odoldu ta itxur-gatuari begira bere artean ziñoan; "gizon au gero. ¿Jaungoikoa ete da?" Efegutu eutson ba, Jaungoikoa ba-zan, ta judafai agindutako Bakalduna ba-zan, esateko; ta bere bakalguntza, noraño eltzen zan, ta bere Jaungoi-tasuna zelangoa zan atzalduteko.—Josu'ren erantsunaren una baño ezin neinke esan—Josu'k bendo ta itzalez erantzun eutson, bere bakalguntza ta ala azaldu eutsozan; Pilatus'ek egin-dako oben ixil gustiak agertu eutso-zan; iragañi eutson azken ikaragafia izango ebala ta gizonaren Semea, bere kaltez epai zuzena emotera etofiko zala.—Josu'ren itzak erdi-bildur ta erdi-asañe imini eben, ta ateyora biurturik Josu azke itxi gura ebala iragañi eban. Orduan deadar egin eben: "Azkatuten ba'dozu, ezara Kaisa'az aizkide". Beste batzuk bakaldun-aren aufean zalatuko ebela iñoen jaya naspildu ebelako; auzia amaitu bearzala, amañetako txadonan egon bear ebela-ta. Alde guztietatik ¡Untzau bedil entzuten zan, ta askok etxe ganetara igonda, berorixe deadar egiten eben. Pilatus'ek igañi eban bere alegiñ-ak alpeñikoak zirala. Ango gafazi ta zalaparta ikaragafiak ziran, ta eñitafen artegatasuna ikusita itxulaskunde bildur izateko zan. Pilatus'ek ura erakafi ta otsein batek eñien aufean eskuetara ixuriten eutsola, deadar egin eban etxearen goyaldetik: "Obenge edo iñozente anaz done onen odolagaitik: zeuek ikusiko do-

zue." Entzunda bat-batean zarata itzal ta orokofa urten zan ozte artetik, ta bertan Palestina'ko alde gustieta-koak egozan: "Geure ganera ta geure seme-alaben ganera jausi bedi bere odola."

(Ane Katarine Emmerich'tik euzkeralduta.)

MANTEROLA'TAR GABIREL ABADIA.

¡SALTZALLEA!

IXLTASUNA bai-zan Getsemani aldean dana zan motela ta damorrigarria, bakarrrik entzuten zan ostoen urrumada soñu negarrezkoen eresilaria.

Baketsua egoan baratz damorritsua —eizak beti dira bakezko lekuak— eta zugatz-artean oparria agiri da Jesus'ek egiteko Aitari erreguak.

Bertatik baña dira oiua eta algarak, destaña ta birauak entzuten urrean; agertzen dira laster borru odolgiroak gizon motz bat dabela gidari, aurean.

¡Judas saltzallea da!... dator begietatik bere barruko suen boladak botaten; arpegikera itzalaz, albo-alboka eta zorabiauta legez dala ureratuten.

¡Judas! zuk zer dakazu billau ta malmuts orrek? ¡jalperrekoak dira mozorrokeriak! mosu bategaz dozu saltzen zeure Maisua? etzaitu bildurtuten bere iragarkiak? Zedron'go arkaitzetan ez dantzuz oiarzunak zure ziñazkidaren salaketariak?

Ez dantzuz igarlien damuzko eresiak, David'en zitarien irrintzak ez dantzuz? ez dozu zeuk entzuten abesten diardula zure ondamendiá sotinka ta amorruz?

Gabeko illuntasuna tximistak argitzean ikusten da esegita lakio batetik iguin eta zabuka aidea firi-fara gorpu bat zinziliska zugatz-adarretik.

Erroi eta buzoka ta miru gosetia

euren erpakaz dabe laster birrinduten eta gero dabiltzaz iasarka pizti tzarrok ospillik andiena nok erungo daben.

Ez ditu artzen lurrak, ez, aren gorpuzkiñak; udabarrian inoz ez da loratuko Haceldama legorra, Jaungoikoen erallen. salatari izango da, ta bardin lekuko.

PADARRA.

Josu'ren bureztuntzea

Donokiko Bildots otzan Josu, zauri bat egiña gelditu zen, bofero zitalak zigoñtatuta, Pilato's en aretoan utzi zutenean.

Gizonik basenen biotza austekoa bazen Josu efügea arela ikustea; baño gizon ek, artz otso odolzaletuak balire bezala, geyago ta geyago sutu ziren eta oñazgai miñ miña asmatu zioten beñiz.

¡Josu enel ta itz erdikai bat ateri gabe daramazu poz pozik ene maitasunez!

Gure Josu'k bere gorputz zaurituari agitz neke gogoñakiñ soñak yauntzi orduko, gogof-tasun afigañakiñ kendu ziozkaten beilaxen biotzge ek eta bakaldun yaunzki gofi zafa lepotik soñeratu ta alki batean yañierazi.

¿Atsedean apur bat emaiteko ote? zulezeko amofatuak artzen dute arantze gogof-dun bureztuna ta Josu obengeari Buru deunan paratzèn diote.

Bofero biozgeak eben atzapaf zikiñak arantziekiñ ez zulatzeke ta ez odoltzeke, makilka sartzen diote buruan Josu'ri bureztuna ta arantze aña odol-ituñi egiñik dago buru deun ura.

¡Josu, Josu, enel ñola yasaiten dituzu unen oñaze samiñ gogofak?

Buruko miñ pixka bat, naikoa dugu eziñ egonez bazter guziyeri adierazteko, ta, Zuk, Gaizkale deun ofek, inkik ateri gabe, ortxen dituzu safturik bañen bañen irurogei ta ama-bi iltze zoñotz luze añaoko arantz gogofak.

Dakust, Josu ene buru deun ori guziya zula-tua; kaskada bakotxean doazi barnago arantzeak; austen dizute buru-ezuña ta buruko muñ, zaiñ, lo aldeak eta buru guziya zauriturik daukazu: arpegi, begi, belafi ta lepotik beiti odola zulfustan zariozula. Oraintxe bai dela egia, Igañle deunak ziyona: «Oñetik bururaño ez dauka oñaze gabeko tokirik »

Zakustat, Josu ene, oñaze lafi bizi bizi oriekiñ iñ zoriyan, eta ala ere ene biotz obendun au idof eta gogofa daukat, bofero zital bureztunlarien antzduna bezela.

¡Josu, ene Jaun ori! badakit nere oben gaitzak, bofero biozgien esku bureztuntzaleak direla; ongi dakit nere oldozpen likits, ene gogapen aragizkoak eta aundi uste añotzafak direla Zu ofela bureztundu zaituztenak ..

Bakaldun orok bureztuntzat bilatzen dituzte



V'urtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Orila 1.ⁿ

49'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Paskua osteko lenengo igandeko Goizparki edo Ebanjeliuma

Egun atan, larunbatez edo zapatuz, belu izanik eta judarren bildurrez ikasliok egozan tokiko atiak itsita egozala, eldu zan Jesus euren erdira, diñotsela: «*bakia zuekin. Neure Aitak bialdu minduban letxerik bidaltzen zaitubet.*» Oneik esatian putz egin eutsen; eta diñotse: «*Artu Espiritu Santua; pekatuak parkatzen deutsezubezanai parkatuko jakez, ta zuek eutsiten deutsezubezanai eutsiko jakez.*» Amabitatiko bat, Tomas, Didimo eritxona ez eguan eurenkin Jesus etofi zanian. Beste ikasliak esan eutsen berari; «Jauna ikusi dogu.» Berak diñotse: «Bere eskuetan untze zuluak ikusi, ta euretan neure atzamarra, ta bularrekoan neure eskua saftu ezik eztot ziñestuko.» Eta andik zortzigarren egunian ikasliak egozan barruan eta Tomas eurëkin.

Etorri zan Jesus atiak itxita egozala, ta ezarri zan euren erdian iñotsela: «bakia zuekin.» Gero diñotso Tomas'eri: «Sartu emen zeure atzamarra, ta ikusi neure eskuak, eta ekarri zeure eskuoi ta zartu neure bularrian, eta [ez izan ziñeskatxa, ziñestuna baño.] Diñotso Tomas'ek: «ene Jaun eta Jaungoikua.» Jesus'ek diñotso: «Ikusita ziñestu dozu; zorientsuak ikusi barik ziñesten dabenak.» Ikaslien aitzian (aurian) Jesus'ek egiñiko beste mirari asko eztagoz idatzita idazti edo liburu onetan. Oneik idatzi (eskribidu) dabez Jesukristo Jainko-Semia dala ziñestu dagizuben, eta ziñestuta bere ixenaz bizitzia euki dagizuben.

* * *

Siñestasuna da ixate-goitiko arimako bizitzearen sustarra ta endopia. Landarea, sustarrak galdu nai sustarreko gexua sortu ezkerro, galduko da; etxia, ondope edo zimentuak oben egin ezkerro, bera dator: era berian, ziñestasanian errenga, makalka, txar-



V'urtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Orila 15.^o

50'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Pasko-osteko irugarren iganderako Goizparra (Ebanjelijua)

Aldi atan: Diñotse Jesus'ek ikasliei: "Emendik apur batera enozube ikusiko, ta beste apur batera ikusiko nozube, neure Aita'gana nualako." Eta ikasliak bata besteari iñotsen: ¿Esan dauskuna—emendik apur batian enozube ikusiko, ta beste apur batera bai, neure Aita'gana nualako—zer da? Iñuen: ¿diñuan ori-apurroi-zer da? Ez togu ulertzen. Jesus'ek, igarririk berari itandu gura dautsela, diñotse: Esan dodalako—emendik apur batian enozube ikusiko, ta beste apur batera ikusiko nozube—orixe jakin nairik zagoze. Ziñes dirautzuket: negar ta ulua egingo dozubela, ludia (mundua) barriz pozez; zuek atsekabez aurkituko zariela, baña zuen oñaze atsekabiok pozera bigurtuko yatzubezala. Seingintzan emakumia larri egoten da, bere miñaldia eldu yakolako, semia

jayoten danian pozez aitzuten yakoz lengo miñak, ludirako (mundurako) gizona jayo dalako. Eta zubez orain atsakabez zagoze, baña barriro ikusiko zaitubet, eta zuben biotza gozatu da, ta poz'ori iñok be eztautzube kenduko.

* * *

Emengo nekiak gozunetxua, arako gela illunera irrikitutik sarturiko eguzki izpia lez, euki oi-dabe; ta emengo atsegiñak zamintasunez nastuta egon oi dira. ¿Nun aurkituko dogu, ba, Jesus'ek gaurko Goizparkian eskiñiriko, iñok iñoiz kenduko eztauzkun poza? An bestian; betiko bizitzan. Betiko poza, iñok kendu ta ezek iñoiz illunduko eztaun poza |ze ederral ¿Eskintze utsa ixango ete da oritzazkuoi? Ez orixe. Zeru-lurrak uts-emongo dabe, Jesus'en ezkiñiak ez.

Kristiñauak, guazan ba bizkor betiko poz orren billa, Jainko-aginduak ziatz beteta: eztago beste biderik ori lortuteko.

Z. M.



V'urtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Bagila 1.ⁿ

51'g. zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Jesus-Igokunde osteko igandeko Goizparkia (Ebanjeliua)

Aldi atan esan eutsen Jesus'ek ikas-
liei: Aita gandik jatorririko egiaren
Espirituba, Aita-tik bidalduko dautzu-
bedan Poztutzallia etorriko danian,
neugazko ziñalbena edo testigantzia
emongo dau; ta zeuk be emongo do-
zube asikalditik neugaz egon zariela-
ko. Oneik gauzok dirautzubedaz jaus-
pidia artu eztaizuben. Batzartegieta-
tik kenduko zaitubeze: ganera, ilgo
zaitubezanak Jainkua'ri orregaz men-
petasuna agertu dautsola ziñestuko
daun aldia etorriko da. Oneik egingo
dautzubez Aita ez neu ezautu ez gai-
tubelako. Oneik gauzok adierazo dau-
tzubedaz, eurok gertau dakizubeza-
nian gogoratu daizuben, esan neutzu-
bezala.

* * *

Jesus-ek diño: Goteun edo Espiritu
Santuba-k egiztuko dauzala bere
esan, irakatsi ta egiñenak. Eta egia

utsa dan Goteun-Jainkua-k bif-senda-
tu ebazan Jesus en ikastiak edo dotri-
ñak. ¿Baña gure egiñenak baitetsi edo
konpirmauko ete dauz? Bai Jesus-
enaen antzekuak ba'dira. Ez beintzat
dongazkuak ixan ezkerro, gizonak ont-
zat emon arren. Birauak, jayegun
austiak, loikeri ta lapurretak, nagike-
ri, joko ta ordikeri ta abar ta abar, ez
dauzkuz ontzat aftuko Goteun-Jain-
kua-k, eta auxe da betiko zaria edo
zigorpia emongo dauskuna.

Z. M.

Negarren Indarra

Augustiñi buruan sartu jakon Erro-
ma'ra juan biar ebala. Burutik kendu-
ko eutsonik ez egoan.

Monike'k itxasertzeraño lagundu
eutson. Soñekotik gogor oratuta zi-
ñotson:

—Ez zara iñora juango, edo zeugaz
eruan biarko nozu.



V^ourtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Bagila 15.ⁿ

52^g zenbakia
Arpidea lauerleko bi

Irukoitz (Trinidad) deun egune- ko Goizparkia edo Ebanjelua

Aldi atan esan eutsen Jesus-ek ikas-
liei; Zeru ta lurrian eskubide guztia
emon dauste. Juanik bada, irakatsi
gizon guztiei, batiaturik eurak Aita-
ren eta Semia-ren eta Espiritu San-
tuaren izenaz: zuei aginduriko guz-
tiak betetan irakatzirik euroi. Eta
aof, zeuekin egongo naz egun guztie-
tan gizaldien gueneraño.

*
*

Jesus-ek zeregin bi emoten dautsez
ikasliei: bata gizoni irakatsi, bestia,
irakatziriko gauzak bete-eragin. Le-
nengua, zer egin biar dogun jakitia
be zerbait gatxa da, baña egikixuna
betetia gatxagua. Baña biak biar do-
guz goiko betiko saria jadetsi gura
ba-dogu. Eta gizon guztiak sakon eta
arduraz aditu egien zein biarrekua
ixango eben berak agindurikua bete-
tia zoriona lortuteko, Jesus-ek aiatu-

ten ditu bere eskubidiak, goi-beko
guztiak beriak dirala esanik; ganera
aitatuten dau Irukoitz edo Trinidad
deuna, Jainko bat Aita, Semia ta Es-
piritu Santua iru pertzonetan; adiera-
zoten dauskula, orretzek Irukoitz edo
Trinidad deunorrek, itzaltasun eta
zuzentasunik andienagaz, Jainko ta
Elexa Ama-aen agindubak betetan ba-
doguz ezarriko daula gure buruan,
angeruan aitziañan (aurrian) betiko
bureztun edo koroia; baña bedorrek
zigorpetuko gauzala betiko nekiekaz,
orreik agindubok ausiten ba doguz
geure egitadakaz: Iragarri ta deya
egiñik dago; guri dagokigu zintzo ain-
tzat artzia.

Z.M.

Negarren indarra

Illabete batzuk baño ez zituen Au-
gustiñ'ek Erroman egin; gustiz sendo-
tuteko aña.

Klemente doipuruak Beato ala zorunduntzat iragañi eban.

*
*
*

Umetxu bizkaitara: oña Simon zorundun-aren bizitza laburtxua. Goxo yatzu? baietz uste dot, eta oñek asko poztuten nau. Goxo bayatzu, bein ta bañiro irakuñizu, beragaz lore txorta bat egizu, bere usain gozoagaz elizkoia, eliz-zale egin zaitezzen. Bere bizitza irakuñiaz Ama Birgiñearen zalezale egin zaitezela. Aguf Maria eñe zautea askotan eukiten ikasi deizula.

Auxé opa deutzu zure maitale.

JATAMENDIK.

Gurutz auteskundea

(Ipuña)

Bai yoyan bein baten, bidesti bat, eguzkiak kiskaltzen eban bide latz batetik, bere bizitzako gurutzea ozta-ozta eroyal.

Ta gaba eldurik gelditu zan, eta arnaz estuka bereartean ziñoan:

¡Ondo gurutz astuna emon deust Jaungoikoak!

Josu-Kisto'ren antzekoak izateko bai dakit gustiok gurutza eroan bear dogula, baña nik daroadana astunegia da, zapaltzen nau...

¡Ene Jaungoikoa! ¡Ene Jaungoikoa! Daroan zamau; ¿ez aldautzazu arinduko?...

Onetan lo gogofak artu eban. Bat-batean Josu-Kisto agertu yakon, bere ingurua argi biziz betetan ebala, ta leunki esan eutson:

—¿Daroyazun gurutza baño beste bat nayago dozu?

—¡Bai, jauna bai! Txiroa naz, aguratu naz, ta ezin neike luzarogo eroan. Irurogei urte onetan, eroan dot gurutzau, ta pozik eroan be, Zeugandik artu nebilako, baña Jauna.

—Ene seme, zatoz Neugaz.

—Beriala.

Bidestiak leiza andi bat bere aúfean zeukan. Ta Jaunak esan eutson:

—Ementxe daukazuz bilduta, neure eñukiz

gizonak donokiratzeko, egin dodazan gurutz gustiak; itxi zeinke ba zeurea, ta artu zeuretzat egokiena deritxozuna

Sartu zan bidestia. ta ikusia, ludiaren azieratik azkeneraño, gizonak eroan dabezan eta eroango dabezan gurutz gustiak, izutu ta bildurtuta lez geratu zan.

Luzarotxuan, astertuten ibili zan; artu banan banan, astatu, (pixatu) batera ta bestera erabili, txastatu ta izten ebazan.

Mota gustietako gurutzak ziran bertan. An ziran *keska-gurutzia bekaizkeri, eskartxar* eta *senitarteko asare-gurutzak*. Baita *gaitzetsi, oben izuna* esari, *asareak* ta aizkide *salzaleak* geureganatzen dabezan gurutzak. Baita be eri edo *gexo mota gustiak dakarskuzan-gurutzak*...

Ta banan banan ikusita esaten eban:

— *Ez, ez; au bez...* Baña neure Jaunoi ¿bat edo bat autu berko ete dot?

—Ludian gurutza barik, zeruan ez dago burrestunik (koroarik), erantzun eutson. Josu-Kisto'k.

Bidestia bere sailari jafaituta, bañiro be astertu ta billa zebillen ta biotzgetuta zer egin ezekiela geratu zanean.

—*Ara*-esautson Josu-Kisto'k abots bigunaz.

Ta ateburutik ur samar ikusi eban atseginez bete eban gurutza bat, jaso eban eta bere espanetatik gentza-arnasa urten zan.

—Auxe uste dot eroan al izango dodala; astun zamaña da baña, besteak ba ain ikaragarriak dira .. ¿Artu neike ba Jauna?

—Artu eikezu esautson Jaunak.

Urferatu zan artzekota... gañasi andi bat egin eban *bere gurutza ezan ba!* Jaunak bere efukiz emon eutson gurutza, ta berak astunegitzat beragandik aldendu ebana.

(Sylvain'tik euzkeraldua.) Gatarma.



V^ourtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Garagarila 1.^o

53'g zenbakija
Aripdea lauerleko bi

Goteun edo Espiritu Santu-Etor- kunde - osteko III Igandeko Ebanjelijua.

Aldi atan: Urreratu yakozan Jesu-
zergari edo publikano ta pekatarijak,
berari entzutiarren. Barriz parixeota-
rrak eta jakitunak mur murka ziñuen:
Onek pekatariak artzen ditu, ta eure-
kin jaten dau. Eta eurei diñotse ipoin
au: ¿Zuetariko edozein, eun ardi jabe
ixanik, bat galduko ba'litxakio, laro-
geta emeretzia lekaro edo desiertuan
itxirik, ez ete-litzake galdurikuan bi-
lla asiko, axe idoro arte? Eta idorota-
kuan, iminten dau pozik bere sorbal-
dan; ta eldurik etxera deitzen deutse
auzoko ta aizkidiei, esanik: poztu neu-
gaz, galduriko ardia idoro dodalako.
Diñotzuket, zeruan be, olantxerik,
garbaturiko (damaturiko) pekataria-
gazko poz andiagua ixango dala, gar-
batu bial bako larogeta emeretzi ona-
kazko baño. ¿Edo, zein andrak amar
zidar-diru eukirik, bat galduko ba'li-

txakio, eleuke, argia ixioturik, ardu-
raz etxia aratuko zidar dirua idoro
arte? ¿Eta, idorotakuan deitzen dautse
aizkide ta auzokuei esanik: poztu neu-
gaz galduriko zidar-dirua idoro doda-
lako? Dirautzuket ba: Jainko-ange-
ruen aitzian (aurrian) ixango da po-
za garbaturiko pekatari bategazko.

* * *

Zeruan be jaya egiten dabe pekata-
ria Jainkua'gana itxuli ezkerok; beraz
au gauza anditzat daukoe. Beraz, pe-
katuko egokeria zeruan gauza txar-
txartzat daukoe, egokera orreri isti-
ak ain poz andia emoten dautselako
zerutarrei. Baña, gizonok ori gora-be-
ra txikitat daukozu. Gutzat: dirua,
osasuna, bizitza luze ta aukeratzua,
ta olakoxiak garrantzi edo inportan-
zia andikuak. Ulertu (aditu) daigun
ontxe, sazoz, geure juan-retorri guztia
dagola pekatuari iges ta Jainko-lege-
pian zintzo ta garbi bixi ixatian: Au-
xe egin eta auxe iraklatzi.

Z.-M.

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

V'urtia
Amabosteunerokoa

Zorrotza 1916 g. Garagarila 15.ⁿ

54'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Goteun edo Espiritu Santo Etor- kunde osteko boskarren igan- deko Goizparki edo Ebanjelua,

Aldi atan: Diñotse Jesus-ek bere ikasliei: Zuen zuzentasuna jakintsu ta parixeotarrena baño ugariagua eza da etzare sartuko zeruko bakalterrian. Entzun ixan dozube aintziñekuei esan yakela: eztozu ilgo, eta iñor ilten dauna auziaren errudun ixango dala. Baña nik dirautzuben: anayaz asarratu ezkerro ausiaren errudun ixango dala; irain-berbak esan ezkerro batzarpe errudun ixango dala; eta senbakua esan ezkerro gaiztoki edo inpernu-errudun ixango dala. Oparia altaran eskintzian gogoratzen ba'zara zeure anayak zozer daukola zeure aurrezka edo kontra, itxi oparia altaran, eta zuaz lenengo zeure anayaz aizkidetzera; ta ordubantxe, etorririk, eskiñi oparia,

*
* *

Gogoratu Jainkua'ren zuzentasuna. Ikasliak asko maite ebazan Jesus-ek, baña enparauak neurtuko ebazan kaniaz neurtuko ebazala adietan emoten dautse, esanik: orrako, parixeotar ta jakintsubak zeruan sartuko etziran lez dongaro, Jainko-legiak ausirik, bixi ziralako; eurak be bere maite-kutunak ixan arren etzerala zeruan sartuko zuzen bixi-ezik. Alan ba, ezkaitezaz atzipetu edo engañau Jainkua'ren ixakeriaz ardanetxe nai kape-tegian urliak Jauna onakua edo olakua dala esanik ziñestuta. Jainkua nor dan, bere ixakeria ezautuko dogu Ebanjelio-ko bere esakuna ta egiñenetatik; nun argiro ikusiko dogun Jainko-zuzentasuna: Zuzena onai betiko saria emoteko; zuzena dongak (diranak - dirala) betiko gaiztokira jaurtzeko.

Z.-M.



V'urtia Amabosteunerokoa	Zornotza 1916 g. Dagoniā 1. ^o	55'g. zenbakija Arpidea lauerleko bi
-----------------------------	--	---

**Goteun edo Espiritu Santu Etor-
kunde osteko VIII - Igandeko
Goizparki edo Ebanjelua.**

Aldi atan: Jesus-ek esan eutsen ikas-
liei iponau: gizon aberatzak ornikaria
(mayordomua) eukon; eta salatu eu-
tsen au ugazabai bere ondasunak gal-
du ebazala. Deitu eutson, eta diñotso:
¿Zer entzun dot zeutzaz? Agertu, zeu-
re ornikaritzako artuemonok: ezingo
dozu gauftik ornikaritzatik egin. Diño
ornikariak berartian: ¿Zer egingo dot,
ugazabak ornikaritzia kendu daust-
eta? Atxurrian ezin, eskian lotsa. Bai-
dakitz zer egin, ornikaritzatik kendu
nagianako, euren etxietan artu na-
gien. Alan, baturik ugazabaren zordu-
nak, diñotso lenenguai: ¿Zemat zor
dautsok neure ugazabari? eun ontzi-
kada orio. Artu eure agiria: jarri las-
ter, idatzi (eskribidu) berrogetamar.
Beste bateri diñotso: ¿Ik zemat zor
dautsok? Berak diño: 2.200 anega ga-
ri. Artu eure agiriak, eta idatzi emen

1.800. Eta ugazabak gorestu eban
dongakeriako ornikari edo mayordo-
mua bere zurtasunagaitik, ludi edo
mundu aonetako semiak argitako se-
miak euren jatorrian baño zurrago di-
ralako. Eta neuk dirautzuket diruaz
egizubez aizkidiak, emengua azkendu
dakixubenian artu zagiezan betiko bi-
zi-tokietan.

* * *

Guztiok daukogu geure arimen or-
nikaritzia, ta bizitza-guenian Jain-
kua'ri orren zenbakuna edo kontua
emon biarra. ¿Zurtasuna ete da zen-
bakun orregaz aitzuta bixi ixatia,
iñoiz etorriko ezpa'litxakigu lez? ¿Zur-
tasuna ete da, "zenbakuna edo kontu
emote ori oraindik urrin yagok; orren
gomutiak larritu egiten nayok eta ori
bape gogoratu barik zabal bixi biar
nok," esanda, egun ikaragarri aregaz
sarri ez arduratzia? Ez; ezta zurtasu-
na, zorakeri andia baño. Aolan egiten
ei-dau egazti batek: ezairiak edo ka-
zariak jarraitu ezkerok, egazti orrek

JAUNGOIKO ZALE

EUKELDUNEI EUZKERAZ

V'urtia
Amabosteunerokoa

Zorrotza 1916 g. Dagoniā 15.ⁿ

56'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Goteun edo Espiritu Santo Etorkunde osteko amargarren igandeko Goizparki edo Ebanjeliua.

Aldi atan: Euren burubak ontzat eukirik bestiak aintzat artzen ez ebezan batzueri esan eutsen Jesus'ek ipuin au: Gizon bi igon ziran elexara otoi (oraziño) egitera: parixeotarra bata, zergari edo publikanua bestia. Parixeotarrak, zutunik, auxe otoi egiten eban: Jauna, eskarrik asko beste gixonak lako arrapatzañe, lapur ta ezkonausia enazalako; zergari au be dan lez. Astero baru bi egiten dodaz, neure gauza guztien amarrena emoten dot. Zergaria (publikanua) urriñekaldian zutunik, etzan azartuten begiak gora jasoten be; baña, bular joka, iñuan: Jauna, pektarioni efuki zakioz: Dirautzobet au jatsi zala bere etxera, aregazko onduta: bada gores ten dana apaletsia—beratua—ixango da, ta apalesten dana goratua.

Beti, Jainkua'gazko artu emonetan alan be, ixan biar gara apalak, ez an-

dieretxi ta arruak. Eta Jainkua'k zigorpetzen (kastigau) gauzarian orduantxe ardura andia, buruba makur-makur eginda, zigorpia apalik artze-ko, bere aurrezka (kontra) jagi barik. Ez gaitazan ixan buruba zapaltzen dautson buñdiñari ezten zoñotza sartu nairik dabiñan zirauna lakuak, ilgo daun eskua apalik mizketan daun bildots otsana lakuak baño, ezpiarra ta zoritxarra datorkiguzanian. Gexuak, txirotasunak edo pobrezia, zozkera txarrak, bakezak nai keskak ots egin dagñenian gure biotzeko atian, zergari edo publikanuaz esan apalik: Jauna, pektarioni erruki zakioz; zeure naya bete bedi. Eta Jaun errukitsubak entzungo dau gogoz zuen otoi ta eskari apala, zergariarena lez, ta berak urrinduko ditu zorigatxak, geure onerako ba'litz. Artu ondo goguan biotz apaletiko eskaria eltzen dala Jainko-goyaulkiraño, ango eskaf edo graziak jarioteko; ta eskari arruak iguintzen daula Jauna.—Z.-M.



V'urtia

Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Iraia 1.ⁿ

57'g. zenbakija

Arpidea lauerleko bi

Goteun edo Espiritu Santu Etor- kunde osteko XII - I gandeko Goizparki edo Ebanjelua.

Aldi atan: Esan eutsen Jesus'ek ikasliei: Zoriontsubak zuek ikusten dozubena ikusten daben begiak. Dirautzuket igarla ta errege askok ikusi gura ixan ebela zubek ikusten dozubena, ta ezebela ikusi: ta entzuten dozubena entzun gura ixan ebela, ta ezebela entzun. Eta jagirik lege-jakintsuba, ziri-ka diño: ¿Irakaslia, betiko bizitzia lortuteko zer egin biar dot? Eta berak diñotso: ¿Legian zer dago idatzita? ¿zelan azalduten dozu? Arek, erantzunik, diño: Maitatuko dozu zeure Jaungoikua zeure biotz, zeure arima, zeure indar ta adimen guztiagaz: eta zeure geide edo projimua zeure buruba lez. Dirautso Jesus'ek: Ederto erantzun dozu; ori egizu ta biziko zara. Baña arek bere buruba oneretzitarren, diñotso Jesus'eri: ¿Nor da neure

geidia? Jesus'ek ekiñik diño: Gizona joyan Jerusalem'dik Jeriko'ra, ta jausi zan bera sakabanatu eben lapur-eskuetan: eta zauriturik iges ziran, illagiñian itxita. Zoriz, elizgizona igaro zan bide aretatik; eta a ikusita aurre-ra juañ zan: bardin eliz-otseña, toki aretara urreratu ta bera ikusirik, igaro zan: Samaritarra bidez joyana eldu zan toki aretara, ta ikusirik a errukitu zan: urreraturik, ardao-oliuaz igortzi ta lotu eutsozan zauriak. Ezarrik asto ganian eruan eban ostatura ta zaindu eban. Biamonian emon ebazan amarreko diru bi, ta diñotso ostalariari: Zaindu egizu ta kastetan dozuna, jeurtian ordainduko dautzut. ¿Iruretatik zein uste dozu ixan yakola geidia edo projimua lapur-eskuetan jausi zanari? Berak, diño: Axe errukiorra. Diñotso Jesus'ek: Zuaz, ta egizu bestorrenbeste.

* * *

Gauza gitxi dagoz Jauna'ren gogu-kuaguak bata bestiaz errukitsubak ixa-

Kepa Deuna (San Pedro) Eromaratuzeanekoa

ASELE (LEYENDA)

Kauldi bakaldun (errege) zala. Josu'ren jayotzatik 42'gafen urtean, ibilien ibiliaz guztiz nekaturik eta soñekoak autsatz ondatuta, Efoma'ko Naval deritxon ate aundira bidesti bat uferatu zan.

Jakitun efomataf bafi-zale bat bere tayuari begira zegoan, eta zerbait jakin gurarik itandu eutson:

Jakituna.—Atzefitar; ¿nondik zatoz? ¿nuntafa zara?

Kepa (Pedro).—Sorkaldetik (orientetik) nator; efomatafok, gofotoz jaurti dozuez zeuokandik neure anak, neure abefkideak Tibefen beste aldetik bizi dira. *Judatará* naz Galilea'ko Betsaida'n jayoa.

Jakituna.—¿Ze asmogaz zatoz Efoma'ra?

Kepa.—Zeuen guzufeeko-jainkoen uskurtza (erlejiñoa) bastertu ta *egizko Jaungoiko baka'ra* ezaguerazteko natof. Uskuftz (erlejiño) bafi bat, on eta Jaungoikozko baka'fa zeuen artean zabaltzera natof.

Jakituna.—¡Oi eztan gauzaren bat izan beaf dau! ¡Jaungoiko bafi bat erazagutu... Uskurtz bafi bat zabaldu... ¡Arazo andia da! Baña aitatu dozun Jaungoiko ez-ezaun ori ¿zein da?

Kepa.—Zeru-lufak irazan dituan Jaungoikoa da. Jaungoiko *baka'ra* ta iru notin edo *persona*. Aita eta Semia eta Goteun edo *Espiritu Santua*. Aita-Jaungoikoak bialdu eban *mundu* onetara kere Seme baka'fa Josu-Kisto deritxona ta Jaungoiko-izatea galdu barik gizon egin zana.—*Gizon da-*

nas gaztearoa Nazareth'go uri txikian arotzian igaro eban, txiro bizi izan zan, ta geure obenen (pekatuen) zofa Aita Jaungoikoari ordaintzeko Hierosolym'en gurutza baten il zan, eta irugafen egunean befbiztu zan.—*Jaungoiko danéz* zeru-lufen jabe ta aginpideduna da ta bialdu nau, Bakal-erkian (e'feinuan) guftzen dozuezan guztiak txefenak ekafitako Jainko-izunak diriala zeuori adirazteko. Bera da ba guztiak guftu bear daben egizko Jaungoiko baka'fa.

Jakituna.—¡Jainkoafen zuk ames dagizul... ¡Efoma'tafari uri guztietako aginpidea emon dautsen Jainkoak bastertu gura dozuz, euren orde *Jaungoiko gurutzatua* gurtu erazotekol! ¿Zorakeri ta gaiztakeri andiagorik asmau ete-leike?

Kepa.—Ez nago zoratuta; ez. Aldi gitxi bafu zeuen elexak bifinduta ikusiko dozuez ta Efoma'n Jaungoiko bakar bat izango da Hierosolim'en gurutzian il zan Jaungoikoa.

Jakituna.—¿Ta, ze bafi dakarzkuzu, Jaungoiko ofen izenean?... Orain daukagun uskurtza (erlejiñoa) basteru gura dozun ezkeri; uste dot dakarzun uskurtz bafiori efaza biguna ta nasaya izango dala.

Kepa.—Nik erakutziko dodan uskurtza, zorakeritzat etsiko dabe: Adimena, ulertu ezin leikezan gauzak zifnestuteko biaftuten dau; ta biotzari bere girña, ta lera txaf guztiak zuzentzeko aginduten dautso. Ekandu, oitura txar guztiak euren eleixak daukez uri onetan, eta nire uskuftzak danak debekatzen ditu eta euren orde z ekandu (birtute) gaitzenak agintzen ditu: *apaltasuna, garbitasuna, maitetasuna ta lastasuna.*

Jakituna.—Ta: ¿zer agintzen dautzazu uskurtz onen jafaitzaleari?

Kepa.—*Mundu* onetan, guda, atsekabe ta samintasun asko igaro bear-zo dabez. Gertu egon bear dira dana, euren bizitzarañokoa, emoteko zinste au ukatu baño lenago. Baña, ilda gero neuk agintzen dautsiek donokian (zeruan) ludi *mundu* onetan izan leiteken bakaulki (tronurik) edefena baño edefagoa emongo dautsiedala.

Jakituna.—Efoma' tafak euren atsegin guztiak, euren aberastasun guztiak zeuk agintzen dautsezuzan zeruko ondasunakaitik izten ba'dabez, Jaungoiko'tzat eukiko zaitut.

Kepa.—Ni neurez ez naz ezeñ, baña ni bialdu nabena Guzalduna da. Ni bere izenean nator efi guztiari irakatsi, ta bere Uskurtza ludi guztian zabaltzeko.

Jakituna.—¡Ondiño olangorik iñori etxako otul... Efoma'n uririk auferatuenean olango Uskurtz bat ipini, *Galilea'tar gurutziltzatua* guñtu erazo gura izatea izorakeri utsa dal... ¿Nor zara ba zu ofelako arazoetarako?

Kepa.—¿Bai-dakuzuz ibai ertzean aiantzale abek? Euretariko bat naz. Jateko lain irabazteko neure bizitzarik geyena, sareak atondu ta aiantzatan neure efiko itxazutxuan igaro dot.

Jakituna.—¿Zeren bidez ziñestu erazoko dautzazuz *mundutañai* zeure irakatsiak? ¿Kaiser'ak baño gudari (soldadu) ugari ta asartuagoak edo daukazuz ala?

Kepa.—Amabi gara, ta efi guztietatik bananduta gabiz, ta gañera geure Jaungoiko'ak indafez zinstu erasotea gebendu dausku. Berak bialdu gaitu *bildotsak otso artera lez*. Bes-

te izkillurik (armarik) ez dot egufezko gurutzau baño...

Jakituna.—¿Beñik bein aberazki ugari eukiko edo dozu jafaitzalear zeuganatzeko?

Kepa.—Uferik eta zidafik ez daukat, mundu onetan ez daukat beste ondasunik al-leko soñekoak baño.

Jakituna.—¿Orduan; itzlari onen bat izango edozara? ¿Zenbat ikastaro igaro dozuz Atenas eta Alexandria'ko ikastetxetan gizonai irakatsi bafiak artu erazoteko bideak ikasten?

Kepa.—Ni itzlarria ez naz. Ni neure Ikasle arotsaren ikastolara baño ez naz joan, eta bere Uskurtz deunatzaz (santuatzaz) irakatsi dautzana baño ez-dakit.

Jakituna.—Baña, ¿zuk uste dozu bakaldun (errege), latari, agintari, jakitun eta aberatzak zeure alde jafiko dirala?

Kepa.—Ez, nik uste osoa Jaungoiko'agan daukat. Agintari, aberatz ta jakitunak neure alde ipintez; ¿zelan gogoratu be neike?...

Nik aberatzari aberastasunak ezes-teko diñotziet; jakitunari euren adimen-na ziñestepean jafteko; Kaiser'ari bere-eleiz aginpidea itxi ta ni bialdu nabenen aginduak bete daizela.

Jakituna.—Olan ba'da danak zeure aurka eukiko dozuz. Ta orduan; ¿zer egingo dozu?

Kepa.—Gurutzatuta ilko nabe, neure Irakasleak esan eustan lez.

Jakituna.—Benetan esan dautzazun gustitik onexek dirudi egiak. Atzefitar, zure asmua zorakeritzat daukat... ¡Agurl!

—Efoma'tar jakituna aldendu zan bere artean ziñoala ¡Zoro gizajoal "Tamala da judatar onek burua gal-

duta eukiteal“ ¡Gizon ona dirudi bal...

Kepa bere gurutzari mun eginda sartzen da Efo^{ma}'n. Ta jaupari, agintari ta jakitunak bere kaltez jagi afen Josu-Kisto'ren irakatsiak zabaltzen ditu. Efo^{ma}'tar afoari guftu erazoten dausie *judatar gurutzatua*; nasai-keriz bizi ziranai euren oben-nekea eragiten dausie, ta *garbitasun*-zaleak edonun aurkitzen dira. Afantzale jakingeak bere irakatsiak argiro egiztuten dituz ta beren jafaitzaleak zinate bafi-aldez euren sanetako odola pozez izuritzen dabe.

Ufte batzuk bafu Kepa, berak maite eban gurutzan il eben. Bere eriotzez-kero bere irakastolak Efo^{ma}'n dirau. Ta ondorengoak irakastola onetatik irakasten dabe Irureun urtean agintariak irakasle onen kaltez jagiten dira. Baña ogetamabigafen Doipuruak (Aita santuak) ugutzatzen (batiatzen) dau Konstatin bakalduna ta Kapitolio gañean, ainbat gofotau eben gurutza agertzen da. Afezkero Kepa'k Efo^{ma}'ra eroan eban gurutza, *munduan* nagosi izango da. “*Stat crux dum volvitur orbis...*”

Au alatz (mirari) andia jez ete da? Afantzale batek, bere aufka jagi dirian agintari gustiak aspiratzen dauz, ta *mundu* guztiak gurtzen (adoratzen) dau *gurutzean il zan judatar* bat, amabi afantzale Galilea'tafak esan dabela-ta.

¡Au gizonen alegiñez jazo danik ezin ziñestu legi ta alan da be auxe da jazo dana.

Gurutzaganako maitetasunak garaitu dau ludi gustia. Auxe da, kistafen Uskurtza'ren Jaungoikotasunaren agerbide argi ta zindoa. ¡*Jaungoiko'aren atza emen dager!*...—GAMA.

LOYOLA'N

Otoi-bidalguntzaren batzarra.

Eguneroko izparringi-bidez bai-dakije onez-kero gure irakurliak Loyolan jai ospetsuak egin dirala. Au ta gusti be, jai orretzaz zerbait esatia, ziñez, dagokigu; eurotan Kisto-aldez eta euzkera alde elizkizun eta batzar ederrak egin diralako, ta geuk ikusi doguzalako.

Elizkizunak.

Lenengo iru egunetako Jaunartzeak ikusgarriak ziran. Azkoiti ta Azpeitiko mutil ta neskatotxuak aldran etorten ixan dira deun -Iñaki ereserkija abestuten, eta gero jaupa entzan eta Jaunartzen eben beste notin adintsuakaz batian, bitartian abesti samurrak abesten ebezala. ¡Ze jaunartze ederrak! Iru egun oetan elizara sartu ziranetatik ziñor urten ete da gure Jauna bere biotzian artu barik? Laugarrenian, barriz, gizonetan bai... ta ¡ze jase ta ganora onaz!

Illuntzetan Jauna agiri ta agurtza esan ez-kero, Ansoleaga'tar Aba Josulagunak itzaldi ederrak egin dauz.

Azkenengo egunian, amarretan, Gotzañak jaupa nausija egin eban, Valdes'ena errijak aldizka abestuta. Itzaldija ondo baño obeto egin eban Gazteiz'ko Irakurlia dan Muxika'tar Matai jaun urenak. Iru ordu laurenian jardun zan, baña aspertzeke, adi-adi ta gozaro entzun geuntzan gustijok. Arratsaldean, agurtza ondoren erderaz eta euzkeraz itz egin euzkun Laskibar'tar Aba Josulagunak sutsu, bizi, jaun-maitasunez ixioturiko biotz-barrenetik etorkijon berotasnaz, esan euzkun, geure ziñismenari errime eutsiteko euzkera-bidez, geure aurretikoak bezela. Euzkeraz esan zituzan egi ederrak emen ipini gura neukez, baña lekurik ez.

Gero egin zan ibildeuna ezin azaldu leike.

Batzaldijak.

Iru egunetako goiz-arratsaldetan egin dira batzaldijak otoi-belguntzari dagokijozan arazo nausijak aditaldu, eztabaidaz aztertu ta azaltzeko. Egunian iru orduan ekin deutzagu lan oneri, ta an batu garian aztezkarijok asko ikasi dogu, bata-bestiari entzunda, geure errijetan otoi-belguntza ondo zuzendu ta aurrera eroateko.



V'urtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Iraia 15.ⁿ

58'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Goteun edo Espiritu Santu Etor- kunde osteko XIV Iganeko Goizparkia (Ebanjelua).

Aldi atan: Diñotse Jesus'ek ikasliei: Iñok be ezin legikez otseindu edo serbidu ugazaba bi: edo bata gorrotau ta bestia maitetuko dau; edo bata yagon eta bestia ezetsi edo despreziauko dau. Ezin otseindu zengikiez Jainkua ta aberastasunak. Orregaitik dirautzobet, arimiagazko ze jango ete dozuben ardurarik ez eukiteko, ezta gorputzagazko ze jantziko ete dozuben be. ¿Ezta arimia janarija baño geyago, ta gorputza soñekua baño, ala? Aditu goiko egaztiei; erein, batu ta garayetan yagon ez arren, zeuen Aita zerukuak janaritzen ditu. ¿Zubek areik baño geyago ez ete zarie? ¿Zubetanko zeñek, bere gomutiaz, geitu legikio bere luzeriarri oinderdi? ¿Eta soñekuatzaz ze dala-ta lafitzen zarie? Aditu basoko liriuei zelan aziten di-

ran: eztabe lanik egiten; irunbez. Dirautzobet Salomon bere eregitasun guriaz be, ofetariko bat bez etzala jantzi. Gaur dan eta biar sutara jaurtiko daben basoko elbitza Jainkua'k edu ofetan jantziten ba'bau ¿Zemat geyago ez zubek, ziñeste gitxikuok? Ez ba arduraz egon esanik: ¿Zer jan ala edango, edo zegaz jantziko gara? Ziñezbakuak dabiz ofein billa. Bai-daki zuben Aita'k orrein biarra daukozubena. Lenen billatu Jainkua'ren bakalterria ta bere zuzendasuna: ta oneik guztiok ganetikotzat emongo yatzubez.

Emen Jesus'ek irakasten dauku ezin gengikezala bete Jainkua'ren naya, bere legiak, eta batera aragi, ludi edo mundu ta diabruaren gurariak be bai. Jainkua itxi ta geugandik jaurti, edo pekatuzko aukera, atsegin eta bidiei itxi. Jainkua itxi ta jaurtitarren emongo yakuz poz ta atsegin batzuk; baño atsegin labur ta iraisekuak, eta zauskada ta kezkaz betiak

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

V'urtia
Amabosfeunerokoa

Zorrotza 1916 g. Urila 1.ⁿ

59'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Goteun edo Espiritu Santu Etor- kunde osteko XVI Igandeko Goizparkia edo Ebanjelua.

Aldi atan: Sarturik Jesus larunba-
tez (zapatuz) parixeotarren lendaria-
ren (nagusia) etxian jatera, eurak adi-
tuten eutsoen Jesus'eri. Eta aor, Je-
sus'en aurrian eguan gizon ubilleridu-
na (idropesiduna). Jesus'ek erantzun-
ik, diñotse lege-jakintsu ta parixeo-
tarrei: ¿Jayegunian iñor osatzia zille-
gi (ona) ete-da? Areik ixillik egozan.
Baña berak eldurik osatu eban, eta
bidaldu. Eta Jesus'ek diñotse: ¿Zube-
tariko baten astua nai idia zulora jau-
si ezkeru, jayeguna ixan arren etzen-
dukie biskor atarako-ala? Eta eurak
ezin erantzun ixan eutsen orrei. Jatei-
tu edo konbidauei be esan eutsen ipoñ-
au jartoki lenenak zelan autu (eslei-
du) biar ebezan irakatsi nairik: ezte-
gurako deituan ez jarri tokirik one-
nian, zeu baño andizurenagua (on-
drauagua) deituta egon ezkeru, eto-

rririk bioi deitu eutzubena esan ezta-
gizun: Emoyozu aoni jartokioi; ta lo-
tsatuta azkenengo tokia artu biarra
euki eztagizun. Deitzen dautzubenian
zuaz, ta jarri azkenengo tokian, deitu
dautzuna etortian esan dagizun: aiz-
kidia, igon toki obara. Aolan eukiko
dozu andizurena (ondria) jarrita da-
gozanakazko: bada jagiten dana be-
ratuba ixango da, ta beratzen dana
goratuba.

* * *

Jesus parixeotarren etxian eguala
adi adi egokiozan, ia zer-edo-zer don-
garik beragan ikusten ete-eben. Ira-
kurria, ez uste ixan zeuk be ikusle ta
salatzallerik eztaukozunik. Jainko zu-
zen, zoli ta altsuba zeure egiñen gus-
tieri adi dago, onak sarituteko, don-
gak zigorpetuteko. Iñoren diru, on-
dasun edo gauzia artzeko guria jator-
tzu, baña gogoratu ezkeru Jainkua
begira daukozula zigorpetuteko (kas-
tigau) gertu, laster urrinduko dozu
biozkada gaiztuoi. Aragiak zaruaz

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

V'urtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Urriā 15.ª

60'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Goteun edo Espiritu Santu Etor- kunde osteko XVIII Igandeko Ebanjeliuma.

Aldi atan: Jesus igonik itxasontzira igaro eban itxasua, ta juan zan bere urira. Aor nun aurkezten dautsoen uetuba oyan etzanda. Ikusirik Jesus'ek arein ziñestia diñotso uetubari: entziña edo konpianzia artu, seme; pekatubak parkatu yatzuz. Baña lege-jakitunak ziñuen euren artian: ¡biraua esan dau! Eta Jesus'ek, ikusirik arein gomutak, diño: ¿Zegaitik gogoratzen dozubez biotzian dongakeriak? ¿Zer ete-da errezago: pekatubak parkatu yatzuz, ala jagi ta zabiz; esatia? Jakin dagizuben gizonaren semiak eskubidia daukola lurrian pekatubak parkatzeko, diñotso uetubari: Jagi adi, artu eure oya ta ua etxera: eta birjagi zan eta juan bere etxera. Aldria, a ikustian, ikaratu zan, eta gorestu eban Jainkua gizonei tentixorre-

tako eskubidiak emon dautsozalako.

* * *

Jesukristo'k osatu eban ba-batian a gexo uetuba, baña sarri makalaldia ezta juaten noberagandik. Gexo, makalaldi ta zorigatxak, nai dirala baterikuak nai besterikuak, nai luziak nai motxak, nai osaerezak nai osagatxak, nai datofkiguzala zozkeraz (subertez), berez, nai gixonen, etsayen ala beste izakien edo kriaturen bidez, Jainkua'ren eskutik yatorkuz, berra da, geure onerako, bidalzen dautsozalana. Gexo ta zorigatxok, ba, geugana eldu daitezian, geure biotzetan kisketa jo dagienian, gogoratu Jainkua'k emon dautzula axe; ta artu eruapenez. Jauna'ri a urrindú dagiskula eskatu, ta orretarako osakiak artu, ta alegiñak eginda osatzen ezpa'gaitubez, gomutau gexo, zoritxar arexegaz bixi ixatia gura daula Jainkua'k, eta eruan eruapenez azkeneragiño. ¿Esatia errezago dala egitia baño? O'antxe da. Baña auxe eska-

Edeskia (anecdota)

Gangeri (colera) izurrite bildurgarria zan Erroma'n; eta andiki ta aberatzak izurrituteko bildurrez iges egiten eben. Koldarkiri onen aurka zerbait egin bearra zan. Merode eritxon jaupari biotz andidun bat Doipurua'gana joan zan, eta azkatasun osoaz esan eutson: «Jarraibide eder bat bear da; joan zaitez, Doipuruoi erietxera gangeridunak ikertuten. IX'garren Pio biotz zabalduna zan, eta beste barik jagi ta Merode jauna lagun ebalala ikertu ebaban banan-banan gangeridun errukari guztiak.

Etixeratu ziranian aurkitu eben Antonelli Jazkorduna (kardenala). Goraldtu eban euren egiñen ederragaz agertu eben biotz ona, baña gero agiraka egin eutson Merode jaunari Doipurua'ren bizia galtzori atan ipiñi ebalako. Merodek ixilik entzun eutson Jazkordunari, ta amaitu ebanian:— «¿Ta zer?» — «¿Ta zer? diñostazu...? «¿Izurrituta Doipurua ilgo ba'litz?» — «¿Doipuru batek ilten jakin bear daben lez ilgo litzake! erantzun eutson Merode jaupariak.» (Van. Trich. euzk.-G ..)



V'urtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Azila 1.ⁿ

61'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Goteun edo Espiritu Santu Etor- kunde osteko XXI-Igandeko Ebanjelua (Goizparkia).

Aldi atan: diñotse Jesus'ek ikasliei ipoñau: Bere otseñei zenbakunia edo kontua artu gura ixan eutsen erregia-
ren antzekua da goiko bakalterria. Eta zenbakunia artzen asirik aurkes-
tu eutsoen 10.000 talentu diru—millo-
yak—zer eutsozan gizona Nundi or-
daindu (pagau) ez eukolako agindu
eban bere ugazabak bera, emazia ta
umiak, eukon guztiaz, saltzeko, ta aol-
an ordaintzeko. A otseña auspe-
sturi, diñotso, arren: *nigazko luzape-
na artuizu, ta guztia ordainduko
dautzut*. Otseñegaz ugazaba erruki-
turik, itxi eutson juaten zorra parka-
tuta. Otseñak, andik urtetian, idoro
eban otsein-laguna, eun denario—diru
apurra—zor eutsozana; ta eldurik
itoagiñian eukon, diñotsola: *Zorra or-
dainduik*. Otsein-lagunak, auspes-

turik, diñotso arren: *nigazko luzape-
na artu egik, eta guztia ordaindu-
ko dauat*. Baña arek ez eban gura
ixan: jua zan, eta bidaldu eban espe-
txera edo kartzelera, zorra ordaindu
arte. Beste otsein-lagun batzuk au
ikustian atsekabetu ziran errime; eta
etorririk edestu (kontau) eutsoen uga-
zabari, jazorkua. Orðuban ugazabak
deitu eutson aeri, ta diñotso: Otsein
dongia, zor guztia parkatu dauat,
arrena eskatu daustalako zetuan ba
egokia eu eure otsein-lagunaz erruki-
tzia ni eugaz errukitu nazan lez? Eta
bere ugazaba asarreturik itxi eutsen
a zigorkariei, zor guztia ordaindu ar-
te. Onantxerik egingo dau zeuekin
goiko neure Aita'k, biotzetik bako-
txak bere geidiari edo projimuai par-
katu ezik.

* * *

Irakurlia, zuk eta nik sarri egin
dautsoğuz geidiari txatxarkeri ta zi-
talkeriak. Iñoiz, geidiagandik irañak
artu be bai. Lenengotarikuak laster

KISTAR-İKASTI'TZAZ

I

X'gañen Pio'k diño: Josu Kisto'n irakaskizunak ikastia bear-beafekoa da, ta oben (pekatu) astuna egiten dau alperkeriz ikasten ez da izanak. Au egia izan arren gitxi dira ondo gogoratzen dabenak. Gurasoak euren seme alabai kistar-ikastia irakasteko alegindu bear dira, baña tamalez ez dira bear dan lez arduratzen. Ugazabak euren menpekoakaz berberau egiteko bear-tuta dagoz ta ez dira bapere arduratzen. Onelakuak errundun dira Jaungoiko'aren aurrean.

II

Askok gure eleiz Ama'ren egi garbia ez dabe ikasi gura izaten. Uzkuertz (erlekiñorik) ez dabe ezagutzen, eta alan be, Erlekiñoatzaz beti barriketan diardue. Batzar, ardanetxe izparringi, irakurgai, ta antzokietan. Erlekiñoen kaltez itz dagienari, galdetu egijoezu Erlekioko egi zakonak ondo aztertu ba-dabez, ta lotsabarik erantzungo dautzue eurak ez dabela ezagutzen Erlekiñorik eta ezagututeko gogorik be ez dabela. Eta alan dabe, Erlekiñoan kaltez, guzur, ixeka, ta kirtenkeria dariola dabiliz. ¿Non da orren jakituria? ¿Non orren burua? ¿Non orren argiak?

III

Ziñesten ez daben geyenak kirten batzuk diriala jakin gura ba dozue egizue lekide (paralle) batek egin ebana:

Lekaide bat bidez yoyan. Bere alboan gudari-buru (oficial) bi yoyazan. Desteñaz eta barrez Uskurtz-kaltez

barriketan azi ziran. Bai zan au guzur eta kirtenkeriak esan bearra... ta ez barriak be, beti esan oi diranak bañ.

Lekaideak dana ixillik entzun eban. Azkenez ixillik egoten aspertu zanian, asi zan eurakaz barriketan ta igarri barik euren autuetan, guda-gauzeta-ra jo eban. Lekaidea asi zan ben ben onetzaz be itz egiten eta gogo guztiaz kirtenkeri ta barregarrikeri asko esaten. Gudari-buruak barrez eztanda egin bearrean entzuten ebezan. Lekaidea be asarratu biarrean, eurakaz barreka azi zan eta jarraitu eban:

—Nik jakiñ ezagaitik gudatzaz diñodazan kirtenkeriak barre eragiten dautzue; eta ondo egiten dozue. Auxe ba jazoten jako deusik ez dakizan gauzatzaz barriketan diardunari. Une gitxi dala Erlekiñoatzaz barriketan ekin dautzazue eta uste dot neuk gudeatzaz ezan dodazan tentelkeriak baño andiagoak esan dozuezala.

Gudari-buruok aitu eban lekaidearen ikasgaya. Aurrerantza afduraz itz egiten eban.

G.

IZKIRIMIRIYAK

Doibatza (Elexa) irazi zanetik ona 260 Doipuru (Aita Santu) izan dira.

Euroatik 77 deunak dira; ta oneititik 37 ziñopa (martiri).

Doipuruaren yayoterriak. Siriatarrak 7 izan dira; Greciatarrak 14, Italitarrak 192; Apirkatarrak 3, Dalmazitarrak 2, Traziatar-rak 1, Españatarrak 4, Pantzetarrak 14, Borgoñatarrak 2, Doixtarrak (alemanak, 6, Ingalandarrak 1, Belgicatarra 1.

—15 Doipuru, sendi (pamili) beartsu ta txi-roetakoak izan dira Oneitatik Adriano IV.º ezkeko baten semea izan zan, IV.garren Urbano txarrizain batena. XI.garren Benedicto

garbitsaġe (lavandera) baten semea; Benedicto XII garrena bolukari errotarien semea; V.garren Alejandro gaztearoan ezkean ibili zana, V.garren Nicolas ollo zaltzale baten semea; IV Sixto arrantzale batena, ta azkenez V.garren Sixto'k bere gaztearoa txarrizain igaroro eban.

Osagġe edo osagġeen semeak bost izan dira Doipuru.

Autetsi (elejidu) ta illa bete barruan il ziran amar; eta oneitatik III.garren Estepan, iru egun barru, ta Urbano VII.garrena ama-bigarren egunean. Autetsi ta urte bete barruan il ziran 24 Doipuru.

Ogei urte baġo geyago Doipurutzan iraun dabe bederatzik; eta geyen iraun dauna IX.garren Pio da; 30 urte ta ille batzuk igarozituan da.

G.

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

V^ourtia
Amabosteunerokoa

Zorrotza 1916 g. Azila 15.ⁿ

62^og. zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Goteun edo Espiritu Santu Etor- kunde osteko XXIII - Igandeko Goizparkia (Ebanjeliuma).

Aldi atan: Jesus'ek aldriari berba egiñik aor nun, lendaria (principia) urreraturik, gurtuten eban bera esanik: Jauna, alabia orantxe il yat; baña etorri, imiñi zeure eskuba bere ganian eta bixiko da. Eta jagirik Jesus jarraitu eutson, ikaslak be bai. Eta aor nun amabi urtietan odol jariua eukon emakumia eldu yakon atzetik, eta ukutu bere soñekuaren magalari. Bere artian iñuan: Bere soñekuari bakarrrik ukutuko ba'neutso be, osatuko nintzake. Baña Jesus'ek atzera begiratu ta bera ikusirik diñotso: Alabia, ustia artu, zeure ziñestiak osatu zaitu; ta une aretan emakumia osatu zan. Eta Jesus lendariaren etxera eldurik, soñulari ta eroztari-taldia (illetetan negarrez juaten zan aldria) ikusirik iñuan: Alde; eztago ilda neskata, lo-

tan baño: Eta barre egin eutsoen. Aldria atara^oebenian, ^osartu^o zan^o eta eldu eutson eskutik. Neskata^o biztu zan. Eta aonen ospia edo pamia zabaldu zan lurralde aretan.

* * *

Lendariak gauza andia eskatu eutson Jesus'eri, bere alabia biztutia, ta lortu eban. Gauza andiak Jainkua'ri eskatzia ezta ba arrokeria. Geuk be eskatu dagioguzan Jauna'ri gorputz-arimarako gauza andiak; gorputze-kuak arimiaren onerako ixango ba'dira. Baña, alanbe, arimako onbide edo birtute gurenak, santutasun-malla eregia eskatu sarri. Geuk be artu asmo-erabagi andi, goi-goikuak geure biotza Jesus'enagaz alkartzeko, bere antz-antzekuak ixateko, geure, gurari ta biozkada^o artezturik Jainkua'ren naya alik osuen egiteko. Baña gure asmuok iñoiz bete baga isten ba'doguz be, ez biozkatu, eskatu bai laguntasun indartzu ta berarizkuagua. Eta besua ez errukia txikortu etxako-

JAZOKUNA

Silban-Deuna lekaipuru zan, lekaretxera eldu zan bein lekaide bat; lekaidiak zimeragiñan inñarduben, eta esan eutsen:

¿Axiak daruan jaki-bila zabiltze? Inoz azkenik ez daun gogokua biñatu-biañ dozube.

Entzun eutson lekaipurubak eta txakitxu (gelatxu) baten egondokija gertatzeko agindu leban. Bazkaldija eldu zan, etxequak jan leban, baña gure lekaidiari ez leutsoen defu. Belutu zan eta gosiak-ilik, batera ta bestera begira, estu zan bere tokijan.

Geyago ezinda, lekaipurubagana eldu, ta diñotso: ¿Emen gauñ ez dira bazkaltzen?

—¿Bazkaldu ez dira ba? Bai, bazkaltzen dira, baña gixon diranak; zu lez gotzon edo gogots diranak ez dira bazkaldu-biañ. Gu gixon-uts gara ta bazkaldu-biañ gara ta lana egiten dogu bazkarija irabazteko.

Ufengorako esan yakona ondo ikasi leban.

LARIZONDO.

JESU-KISTO TA GIZADIA

(EDEZKIA)

Orain bi milla urte inguru dala, bildu ziran zelai andi baten, gizon guztiak, eta eurak dei eginda eldu ziran batzar orretara, izan diran jakitun guztiak be. Jakitunak gizadiaren aurrez-aurr jarri ziran. Onetan urten zan gizonen artetik aguratxo zimel, makur bat, guztien izenean itz egiteko. “Jakitunak—azi zan aguratxoa esaten—gizon guztiok, ondo dakizuen ez, daukagu geure biotzean egia yakiteko egarri bizia ta zorionekoa izateko gurari sutsua. Egia ezagutu, ta zoriontasuna lortuteko bidea yakin gura dogu; ¿egia zer da? ¿zoriontasuna zer da?; geure barruan zortzen diran itaun biori erantzun nai deusagu ta eztakigu zer erantzun. Irakurri ta be-

rrirakurri doguz, zeuen idaztiak (liburuak), eurak zerbait erakutziko daukuelakoan, eta len baño iñunpetuago aurkitzen gara. Batzar onetara dei egin deutzubegu, ba, zerbait geure itaun orrei erantzun aldautzazuen jakiteko. Entzun egizue ba, geure eskaria”:

Jakitunak adi-adi geratu ziran.

“Ezkatzen dautzubeguna da—esan eban aguratxoak—eta uste dot orretarako eskubidea daukagula, idaztiño bat, ogei bat orritan egi guztia, ta zorion-bidea erakutsiko dabena; gizon guztientzat, naiz aberatz, naiz txiro (pobre), jakitun eta jakinge, gazte ta zar, danentzat bear-bearrezkoa izango dana. Auxe da gizon guztiok nai dogun lenengo gauzea.”

Jakitunak alkarri begira jarri ziran eta euren artean esaten eban: “Itoki onera egi billa: jona yagok gizadia guk irakatsiko deutzagun egiaren zain ba’yagok!,” Eta jakitun askok iges egin eban batzarretik.

Aguratxoak ayola barik jarraitu eban: “Irakaskizunak bakarrik ez doguz eskatzen; baita gura dogu, zeuok irakatziko dauzkuzubena egiñenakaz (*obrakaz*) egiztu dagizubela. Ez gara asetzen egi guztia erraz erraz azalduko dauzan idaztiñoagaz; bertan irakatsiko dauzkuzubezan oitura on guztiak zeuen egiñen on guztietan agertu daitezala be bai, gizon eta emakume guztiak nori jarraitu euki dayen. Idaztiño (liburutxo) ori ¿egin-go ete dozue? ¿Jarraibide ori emongo al dozue?,”

Jakitun geyenak iges egin eban eta aguratxoa, ta gizadia be, ifuntzen (tristetzen) azi ziran.

“Baña ondiño geyago-jarraitu eban

aguratxoak irakazkizun eta jarraibide onaz gañera, gauza onek, izango diran gizon guztiari ikasteko beti iraungo daben ikastola bakar bat bear dogu, bertako bazkideak oitura on guztien eredu (modelo) biziak izan daitezan,.

Itz onek amaituta begiratu eban jakitunen alderdira, ta bat bere etzan agiri iguzti-guztiak iges egin eben! Orduan negarrez azi zan aguratxoa ta beren ondoren gizon guztiak; eta oso atsekabetuta geratu ziran, eurak zorionekoak izateko bearr-bearrekoak ebezan irakazkizunak irakatziko euztzenik aurkitu ezebelako.

Onetan egozala nunbaitetik agertu zan soñeko luzedun gizon bat, gurutz antzeko egur odoldua bere zor baldan eroyala.

Nor ete zan arretaz begira jarri ziran, eta, ikusi eben bere ulegorriak odolez beterik eukazala, ta odola eriyola ugari begietatik zear ta gorputz guztia buztitzen eutsola.

Berak begirakune gozo ta bigun-biguna egin eutzon gizadiari, ta urrerratuaz yoyan aztiro itzal andiaz. Eta gizadiaren ondora eldurik, gurutz ikaragarria lepoan eukala, leunki-leunki esan eutzon: «¿Egia ta zorion bidea gura dozuz? Neuk dakartzudaz ba: Idaztiño bat egi guztia danak ulertzeko eran dakarrena; ¿gura dozu? Ara enen artu egizu liburutxo au.

Gizadiak artu ta irakurri eban lenengo ingorrian *Kistarr-Ikastia*.

Gurutzadunak jarraitu eban esaten: "Zuk irakaskizuna bakarrik ez dozu eskatu, oitura on guztien eredu (modelo) bizia be nai dozu. Amen daukazu: Neu naz. Neu naz zeure Jaungoikoa zoriontasun bidea erakustearren gizon

egin zana... Ta azkenez gauza onek beti irakatziko dauzan batzar, ikastola bat eskatu dozu: Or daukazu neure *Elexea*, berari entzun egiozu."

Gizadia auzpaztu zan eta gurtu eban Jesu-Kisto.

GAMA

Ama Nezkutzaren Aurkezkundia

(Azarua'ren 21'gn)

Jokin'ek, emakume pozkafi ta goraltz aundiyeen gai zan Ane, emaztetzat artu zuen. Ba, antxiñako Ane ura, zoila zala, otoi bidez Samuel sortu zuen bezela, Jokin'en Ane'k ere, otoyez eta ezkiñtaz Jainkoaren Ama izan bear zana, bere e'fayetan sortu zuen, Jainkoak, onetan ere, beste andre joso argitzuen antzekua egiten zuala. Onela, Ezkefak (bada Ane'n izenak ezkefa adierazo nai du), Andrea argitaratu zuen (Miren izenak Andrea ezan naidu ta); bada, Miren, gauza guztien Andrea egin zan, Egilearen Ama egin zanian.

Jokin'en etxe-ikuztegian jayo zan Miren, eta irugañen urtera eldu zanian, bere gura-zuok Jerosolim'eko txadonara eraman zuten. An, Jainkoari, bere izate gutzia ta bere nezkutzazuna ezkiñi zion, eta Goteunak bere ezkafez betetzen zuala, gaimelufaitz naroreen antzera, ekandon guztietako igail ugariak eman zituen. Luñeko kutzu, ta aragiaren griña guztietatik bere gogua, bene-benetan gordetzen zuala, gorputz eta gogo garbi-garbiak gertatu zituen, Jainkoa bere e'fayetan artu bear zuanari zegokion bezela. Onelakua izan zan Miren umetazunetik, bere bizitza danon ikazbidea izan zedin.

Miren aurtxoa, Egilearen begitarako ain atzegingafia ba'zan, ikazi dezagun guk ere nolakua zan, berak iritxi zuana iriztea naidegunok, berak ja'faitu zituan bidiak, ja'faitzeko. ¡Zenbat ekandon dizdilari arkitzen diran Nezkutz argitzu onegan! Lotza osasungafia; ziñizen biziya; maitetasun irazekia. ¡Zenbat nezkutz juango ote dira bere atzian, bere ekandonen uzai gozoa da'faitela! Apal-apala zan, eta guztion bakaldun izan bear zana, guztion

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

V'urtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Lotazila 1.ⁿ

63'g. zenbakija
Aripdea lauerleko bi

Elgaro-ko (Abenduko) lenengo igandeko Goizparkia (Ebanjeliua).

Aldi atan esan eutzen Jesus'ek ikasliei: Ixango dira igargarriak eguzki, illargi ta izarretan, eta lurrian giza-semien esturia itxasuaren zarata ta asarraldiaren nastiaz; igerturik gizonak ludiari (munduari) etorriko yakanen bildur eta arduriar: bada zerueta alizatiak lokatuko dira: eta orduban ikusiko dabe gixonaren Semia, odai ganian eskubide ta altsutasun andiaz datorrela. Oneik jazoten asiko diranian, begiratu ta jaso zeuen burubak, bada urrian dago zeuen birroskunde edo erredenziñua. Eta esan eutsen irudia: ikusi pikua ta beste zugatzak (arbolak): garauak-alortan emoten dabenian bai-dakizube udia urrian dala. Aolan, zeuek be, orreik gertauten dirala ikusi ezkeru, jakin egizube urrian dala Jainkua'ren ba-

kalterria. Ziñez dirautzubet gizaldi au eztala igaroko guztiak jazo barik. Zeru-lurrak igaroko dira: nire berbak eztira igaroko.

Jesukristo'k adierazoten dausku emen guztion epaikaldi edo juiziua. Au urrian dala iragarteko Jauna'k eguzki, izar, illargi, itxaso ta lurrian egingo dauzan igargarriekaz gizonak bildurrez igertuko dirala dirausku Jesukristo'k. ¿Eta epaikaldi aurria olakua izanik, epaikaldia-juiziua-bera zelakua ixango ete da? ¿Eta orain, andiki asarratubaren begiradiari, geure guraso, aizkide ta erritarrenetikiko ondiko ta lotsariari, gauza ezaña egitian, eusteko adorerik ezpa'dogu, azkenaldian, epaikaldian (juizio-egunian) Jesukristo asarratubaren begirada ta epai zorrotzari nok eutsi? Egun ikaragarri aretarako baxotxak zuzendu begiz Jauna'gazko artuemonak, atondu begiz bere oker eta lorrak. Ez uste izan beti eukiko dogula orre-



V^ourtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1916 g. Lotaziā 15.ⁿ

64^g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Elgaroko (Abenduko) irugarren igandeko Goizparkia edo Eban- jeliua.

Aldi atan: Judarrak bidaldu ebezan Jerusalem^odik elizkizon eta elizkizonotzeñak Juan^ogana berari itanduteko: ¿Zein zara? Eta autortu eban: eta ez eban ukatu: eta autortu eban: ni enaz Kristo. Eta itandu eutsen: ¿Zein zara ba? ¿Elias zara? Diño: enaz. ¿Igarlia zara? Diño: ez. Diñotsoe ba: ¿Zein zara; bidaldu gaituenei erantzupena emoteko? ¿Ze diñozu zeutzaz? Diño: ni naz lekaruan (desiertuan) diadar egiten daunaren abotsa: Isaias igarlia esan eban lez: arteztu Jauna^oren bidia. Eta bidaldirikuak fariseotarrak ziran. Eta berari itandurik diñotsoe: ¿Kristo, ez Elias, ez igarlia ezpa^ozara? ¿zegaitik batiatzen dozu ba? Juan^oek erantzuten dautse esanik: Nik uraz batiatzen dot: zeuen artian, dago zubez ezautzen eztozubena. Bera da,

nire ondoren etorriko dan arren, ni baño lenago sortuba: ta bere oñeta-
kuen lokarriak azkatzeko, diñia be
enaz. Oneik jazo ziran Juan^oek batiatzen
ziarduban Betani^oan, Jordan-
bestaldian.

* * *

Deun Juan^oek agintzen dautse juda-
rrei Jauna^oren bidiak arteztuteko: Jainkua^oren bidiak zuzenak eta zintzuba-
k dira; alan, okerreri, dongakeri ta
ustelkerietan dabillena eztabil Jauna^oren
bidietan. Baña aolakua sartu bedi Jainkua^oren bide zuzenetan erio-
tziak bizitzako ari auskorra eten ba-
ño lenago, len-bai len, gero alperrik
garbatu - damutu - ezta-kion Jauna^oren
bidietatik aldenduta ibillia. Eztago
gauza mingoitx ta tamalgarriagorik
—lastima garria—gizonari, burubari
eutsita: ai, au edo beste, alako sasota-
tan egin ba^oneu, etxatan onakorik eto-
rriko; orain alperrikua da: esaten en-
tzutia baño. Auxe da betiko galdu di-
ranen biotza erdibitzen dautsen gomu-